

A large, stylized red apple with a small stem and leaf, serving as a background for the main title.

SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

**“Santa Ana”,
Astigarragako XXXVIII. Sagardo Eguna.**

Prensa oharra.

Kontaktua:

943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.com

www.sagardoarenlurraldea.com

Jende ugari Astigarragako “Santa Ana” egunean

Aurten ere jende ugari bildu da Astigarragako plazara, eguraldia lagun, sagardoa dastatzeko giro ederra egin baitu. Aurtengoan, 20 sagardogileren parte-hartzea izan da eta denera 2.000 sagardo botila baino gehiago eskaini dituzte Sagardun Partzuergoko eta Astigarragako sagardogileek. Beroak, festaren erakargarritasunak, sagardo dastaketak, musikak eta idi-demak, Santa Ana egunaren parte-hartzea mailarik gorenera igo dute eta egun osoan zehar ospatutako jarduera guztiek jendea erruz bildu dute.



Goizean, Iturengo Joaldunek festari hasiera eman diete eta ondoren, gozogintza azokari hasiera eman zaio, bertan erakusketa eta dastaketa izan direlarik. Bien bitartean, sagardo dastaketak jendearen kuriositatea eta egarria asetu ditu Foru Plazan, bertan elkartutako lagunek giro ezin hobeaz gozatu dutelarik.

Idi-demak eta bertsolarien saioak goizeko jardunaldiari amaiera eman diete eta eguerdian bazkari herrikoia izango da.

Arratsaldean, herri kirol jaialdia, clown ikuskizuna, trikitaliak, Laiotz taldearen emanaldia eta hegaluze pintxoak eta Gernikako piperrak parrillan erreta dastatzeko aukera izango da.

Sagardun Partzuergoa

Sagardun Partzuergoa 2003. urtean sortu zen entitate publiko-pribatua da. Gaur egun Sagardoetxea Euskal Sagardoaren Museoa, Sagardo Berriaren Eguna (txotx irekiera ekitaldia) eta "Sagardoaren Lurraldea" marka kudeatzen ditu eta sagardoaren kultura sustatzen du esperientzia turistikoko ezberdinen bitartez.



Sagardun Partzuergoaren osaketa:

Administrazioa

Astigarragako Udala

Talde kulturalak

- Astigar E.O.E.
- Goldea Herri Kirol Batzordes
- Gure Izarra
- Mundarro Kirol Elkartea
- Norberto Almandoz Musika Eskola
- Xagu Xar
- Zipotza Kultur Elkartea

Sagardotegiak

- Alorrenea
- Astarbe
- Bereziartua
- Gartziategi
- Gaztañaga
- Gurutzeta
- Lizeaga
- Mina
- Petritegi
- Rezola
- Saizar
- Sarasola
- Txopinondo
- Zapiain
- Zelaia

SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 331 311

info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com
www.facebook.com/SagardoarenLurraldea
twitter: @sagarlur_es | @sagarlur_eu

SAGARDOAREN
LURRALDEA

txotx.info

 Sagardoetxea

Sagardobenda

 SagardoPedia

SAGARDUN
SAGARDOAREN BIZITZA ASTIGARRAGA

EUSKADI

TURISMO
GIPUZKOA
HAIR TONKE, HAIR NARDOS
TAN PEQUENAS, TAN GRANDES